

MUNDUAN BIRLE BAT DAGO

1

Batetik da Mungia
bestetik Jatabe,
pitxi dotore bat lez
biak zaintzen dabe.
Hau zero txiki bat da
zalantzarik gabe,
Birle beti da Birle
bere burujabe.

2

Zelai zabal garbiak
etxeak dotore,
nundik batu dozue
hainbeste balore?
Pozik bizi zaiteze
ta izan adore,
zerua da bakarrik
Birle baino hobe.

3

Hemen San Andres dago
aintxina jarria,
Birletarrantzat Patroi
txit maitagarria.
Zeuek egin dauka
ermita barria,
Zaindari batentzako
leku pozgarria.

4

Hemen ez dabil inor
burlaz ta katxondo,
bestelan testigutzat
jartzen dot Olondo.
Santu eta sakristau
bai alkarraz ondo,
holango bikoterik
ez da_inun egongo!

5

San Andres zaindari ta
Olondo sakristau
ez neban uste hemen
gaur ikusterik hau.
Antonio Mardaraz
bertsolari famau,
Birlen hau ikusteak
txaloka jartzen nau.

6

Pozgarria izan da
gaur gure jarduna,
guztiok ondo zaindu
Birleko zentzuna:
Lege zaharrez euskaldun
eta fededuna,
gure ezaugarria:
alkar maitasuna

7

Zuek ezagutzeaz
gaur pozarren nago,
hobe hau izan balitz
gaur baino lehenago.
Maite eizue Birle
hoberik ez dago,
gaurtik Aita Martzel be
lagun bat gehiago.

8

Agur, oi, Birletarrak
ume, gazte ta zahar,
orduak arin doaz
ta amaitu behar.
Santu ta Birletarrok
ondo hartu alkar,
eta eutsi Birleri
guztiok su ta gar. Aita Martzel